

Euskaltzaindiaren *Arauak*

Exonomastika batzordea

2019ko araugintza

1. Osoko bilkuran 2019an eztabaidatutako arauak

Maiatzaren 4an (Trebiñun), *Antzinateko artelanen izenak (II): Erromatar Inperioaren garaiko artelanen izenak* araugaia aurkeztu zen, eta uztailearen 19an (Bilbon) onartu zen.

Irailaren 27an (Gasteizen), *Munduko estatuaren izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak* araua (38. araua) eguneratzeko proposamena aurkeztu zen, eta azaroaren 29an (Donostian) onartu zen.

2. 2019an argitaratutako arauak

Abenduaren 18an argitaratu zen 38. arauaren bertsio eguneratua eta emendatua (*Munduko estatuaren izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak*).

<https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberrri/5965-munduko-estatuaren-araua-berritu-du-euskaltzaindiak>

1995ean argitaratu zen lehen aldiz araua, eta, geroztik, zenbait aldaketa egin zaizkio datu osagarriak emateko eta eguneratzeko. Azken eguneratze handia 2007an egin zen. Oraingoan, 2007az geroztik munduko estatuaren gertatu diren aldaketak jasotzeko eguneratu da araua: estatuaren izen ofizialetan gertatu diren aldaketak, hiriburu-aldaketak eta hizkuntza ofizialetan izan diren aldaketak jaso dira. Bestalde, *Mendebaldeko Sahara* eta *Palestina* sartu dira estatuaren zerrendan, oin-ohar banarekin, adierazteko haien estatu-izaera ez dagoela erabat onartua nazioartean.

Araua beste era batera antolatu da: hiriburuen zerrenda erantsi da, eskuratzeko eta kontsultatzeko errazagoa izan dadin.

Eguneratzeaz gainera, informazio osagarri gehiago erantsi da. Gaztelaniazko eta

frantsesezko ordainez gainera, ingelesezko ordainak ere sartu dira. Eta, estatu izenen hiru erdaretako formak ematen diren modu berean, hiriburu-izenen erdal ordainak ere erantsi dira, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, orain arte ez baitziren ematen.

Onomastika batzordea

2019ko araugintza

1. Osoko bilkuran 2019an eztabaidatutako arauak

Otsailaren 22an (Iruñean), *Santutegiko izen ohikoenak* araua (66. araua) eguneratzeko proposamena onartu zen.

2. 2019an argitaratutako arauak

Azaroaren 8an argitaratu zen 66. arauaren bertsio eguneratua eta emendatua

(*Santutegiko izen ohikoenak*)

https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0066.pdf

1996an argitaratu zen lehen aldiz *Santutegiko izen ohikoenak* araua. Orain, araua emendatzea eta osatzea erabaki du Euskaltzaindiak. Hala, 82 izen berri erantsi dizkio zerrendari. Horrenbestez, 424 izen biltzen ditu arauak orain.

Araua emendatzeaz gainera, ingelesezko ordainak ere erantsi dira, orain arte gaztelaniazkoak eta frantsesezkoak baino ez baitziren ematen.